



Euskal liburugintza 1998

*

J O A N M A R I T O R R E A L D A I

*



ertakaritik hurbil egoteak baditu bere alde txar-
rrak. Liburu kontutan behintzat. Liburu guztien be-
rri zehatz jakitea ez dela erraz-erraza, alegia. Urtero
gauza bera esaten dut, urtero-urtero gauza bera gerta-
tzen zaidalako, hau da, liburu batzuk ihes egiten didatela,
kontabilizatu gabe uzten ditudala. Horregatik ari naiz lan
hau bi alditan bailitzan planteatzen: bat aldizkari honetan
aurreratzen dut, ahal dudan hobekien. Baina bigarren eta-
pa helduagoa da, osoagoa, Katalogoan argitara ematen du-
dana. 1997ko liburugintzan, adibidez, 1.166 titulu fitxatu
eta zerrendatu nituen aldizkarian, eta aurten publikatuko
den Katalogoan urte hartako 1.229 titulu bildu ditut.

Bibliografi lanetan, izan ere, osotasuna, perfekzioa
utopia baino urutiago dago egon. Beti landuz, osatuz joan
behar da. Bibliografia bizirik mantentzean dago gakoa.
Horretan saiatzen naiz ni neu aldizkarian publikatuz, li-
buru gisa katalogoa publikatuz eta egunen batean espero
dut *on line* jarritz. Prozesu luze horretan fitxak argituz, gar-
bituz, depuratuz, osatuz, zuzenduz joan ohi dira. Adiskide
eta lankide on batzuen laguntzari esker, neure ahaleginaz
gainera. Ongi etorriak, hortaz, zuzenketa guztiak!

Hogeita bigarren urtez heltzen diot urteroko liburu
azterketari. 1998ko liburugintza aurkeztea da emanaldi
honetako lana. Azken aldiandian landu dudan metodologiaz

▶ Joan Mari Torrealdai Soziologian doktorea eta Kazetaritzan

baliatuko naiz oraingoan ere, eta alor nagusiak ere ohikoak izango dira: argitalgintza, tituluaren gorabeheren azterketa eta gaien arabera sailkatuz egingo dudana analisia.

Argitalgintza

Ondoko zerrendan 1.458 titulu agertzen dira. Horieta-
tik 57 ISBN gabekoak dira, baina liburu-liburuak dira. Kasu
hauetan, zerbait adierazteko, ekoizleen profesionaltasun
eskasa adierazten du ISBNko tramitea ez betetzeak, ez liburu
izatearen ezaugarri falta.

57 tituluaren gorabehera ez dago, ordea, ISBNko agen-
tzia espainiarrak ematen duen zifraren eta nik hemen
ematen dudaren arteko aldea. Agentzia espainiarraren
arabera, 1998an 1.216 liburu atera ziren euskaraz. Nik
ematen dudana zifra dezentez altuagoa da: 1.401 ISBNdu-
nak gehi 57 ISBNgabeak, guztira: 1.458. Berrehun liburu
inguru gehiago daude nire kontabilitatean.

Urteroko koska dugu hori, haien eta nire arteko dife-
rentzia. Eta auzia ez dago inolaz ere irizpideetan, baizik eta
informazioa jasotzeko moduan eta, hortaz, iturrien fidaga-
rritasunean. ISBNko agentzia espainiarraren zerrendak argi-
talletxeek bidalitako fitxei esker osatzen dira eskusiboki.
Eta zer gertatzen da fitxa bat Madrilerara bidaltzen ez bada?
Liburu bat gutxiago, besterik ez. Nire kontrolak fidagarria-
goak direla sinetsi nahi nuke: liburuak berak eskutan izaten
ditut gehien-gehienetan, editorialetako informazio zuzena
eta zerrendak ere bai eta, gainera, Koldo Mitxelena libu-
rutegiko eta Donostiako Udal Liburutegiko lehen eskuko
informazioaz baliatzen naiz liburuaren fitxa osatzerakoan.

Baina arestian esan ditudan arrazoiengatik ez dut zi-
fra hau sakralizatu nahi, urtean zehar osatuz joateko as-
moa dudalako. Esperientziak erakutsi dit hasieran ematen
dudana kopuru honek denborarekin gora egin ohi duela.
Behin-behinekotasunaren ezaugarri hori ez du sekula ahaz-
tu behar irakurleak.

1.458 titulu nola eta zeinek argitaratu eman dituen ja-
kitek ere badu interesik.

Hasteko, datu bat: 183 argitaratzaile daude liburu horien edizio jatorrian. Ekoizle ugari, asko. Izugarri. Gehiegi? Baietz esango nuke. Egin kontu horietatik guztietatik ehunek (hau da, erdiek baino gehiagok, % 55) titulu bat bakarra atera duela urte osoan. Soka bereko beste datu bat: ekoizle guztien % 91 dira urtean zehar gehienez 10 titulu argitara eman dituztenak. Zer esan nahi duen honek? Atomizazioa, sakabanaketa, barreiaketa, nahi den guztia edizioaren ahulezia azpimarratzearen aldera.

Edizio eskas, okasiozko edo dena delako honen beste aldean ez pentsa gero edizio komertzial sendoa dagoenik nahitaez. Argitaletxe-argitaletxetara iritsi aurretik, ehuneko ehun argitaletxe diren horietara alegia, badira bestelako liburu ekoizleak ere, produkzio dezentekoak sarritan. Hiru maila edo mota bereiztuko ditugu, okasiorako: edizio instituzionala (gobernuak, aldundiak, udalak), edizio parainstituzionala-edo (unibertsitateak, kutxak) eta elkarre eta kultur taldeen argitalpena.

Hiru edizio mota hauetan inportanteena, kopuru aldetik, argitalpen instituzionala da: 222 titulu. % 15,3 suposatzen du honek urteko edizio osoaren gain. Eusko Jaurlaritzaren indarra nabarmentzen da hemen Nafar Gobernuaren eskasiarekin batera. Diputazioetan Gipuzkoakoa gailentzen da nabarmen. Udalen artean ere 40 bat liburu argitaratu dituzte. Unibertsitate eta Kutxa desberdinen artean 60 bat titulu ekoiztu dute. Ale batzuk gehiago atera dituzte kultur talde, elkarte, fundazio eta gisakoek.

Orain arte aipatu ditugun ekoizle desberdinen arteko produkzioa laburbiltzen badugu, zera ikus daiteke, alegia, urteko produkzioaren % 40 bat argitaletxe komertzialetatik aparte ateratzen dela. Edizio mota honek, oro har, gauza batean huts egiten du, promozioan. Indar gutxiz kaleratzen dira ekoizle hauen tituluak gehienetan edo beti. Hauentzako guztientzako balio duen akats orokor honez gain, bakoitzak bere joerazko arriskuak ditu, hala nola, plangintzarik eza, profesionaltasun eskasa, zabalketa urria, etab.

Gauza batez nago gero eta konbentzituago: editorial handi edo txiki, ehuneko ehun argitaletxe diren horiek bermatuko dutela euskal liburuaren geroa eta etorkizuna.

Plangintza, dedikazioa eta profesionaltasunetik igarotzen da euskal liburugintzaren berme hori, nire ustetan. Eta noski: euskal liburuaren alde benetako apustua egitetik. Areagoko bermea da, egoera eta jokamoldeak ezagututa, sortzez, kapitalez eta helburuz bertakoak izatea. *De facto*, kanpoko argitaletxeen euskal adarren produkzio kopurua % 10 bueltan ibili da 1998an, eta lehen hamarren artean agertzen dira horietako batzuk produkzioa neurtzean.

Argitaletxe «handiak» eta «txikiak», aipatu dugu goraxeago. Handi eta txiki, gure tamainan. Elkarlanean bat, adibidez, handia da gurean, baina gehienez ere erdi tamainako litzateke Frantziako edizioaren munduan. Eta hemengo txiki batzuk agertu ere ez lirateke egingo han.

Ondoko zerrendan euskal produkzioko lehen hamarrak daude. Ohartzekoa da zein alde handiak dauden batzuen eta besteen artean. Estimatzekoa eta sana izango litzateke zerrendaren atze partean agertzen direnak produkzio handixeagoa balute, 50-70 bitarte horretan kokatuko balira alegia. Elkarren artean agertzen diren diferentzia hauek, hala ere, ez dira horren handiak, berrargitalpena ahaztu eta nobedadeetan bakarrik fijatuko bagina. Argitaletxe handiek eta egonkorrek hain zuzen ere urteko produkzioan erdia baino gehiago dute berrargitalpena. Elkarlanean-en ekoizpenean % 67 da berrargitalpena; Erein-enean % 61 eta Ibaizabal-enean % 50,4.

Hona lehen hamarren zerrenda eta berauen ekoizpena:

<i>Argitaletxea</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	331	22,5
Ttarttalo	178	12,-
Ibaizabal	145	9,8
Erein	85	5,7
Giltza-Edebé	53	3,5
Zubia-Santillana	36	2,5
Alberdania	34	2,2
Aizkorri-Everest	23	1,5
Desclée De Brouwer	16	1,1
Susa	12	1,-
<i>Guztira</i>	<i>913</i>	<i>61,8</i>

Aurreko urteetako zerrendak norbaitek gogoratzen baditu, irizpide aldaketa bat antzemango du aurtengoan:

editore komertzialak bakarrik aintzat hartuta osatu dugu aurtengo *ranking*-a. Zerrendatik aparte utzi dugu edizio instituzionala, ez muntarik ez duelako, baizik eta gainerako en elazioa distortsionatu egiten duelako.

Lehen hamarrekoen zerrendan sartu dira orain, Aizkorri, Zubia-Santillana, Desclée De Brouwer eta Susa. Hazi egin da aurten kanpoko editorialen euskal adar gisa funtzionatzen duten argitaletxeen produkzio indarra, guztira: % 10 bueltan dabil. Zerrendatik erori den Gaiak-ekin batera kanpoan gelditu dira, aurten ere, Txalaparta, Sendoa eta beste. Lastima da euskal argitaletxe hauek ez bizkortzea beren ekoizpena, astean bat publikatzeraino.

Taularen aurrenekoetara berriro joz, zera ikusten da, esanguratsuenen artean, Elkarlanean-ek bere produkzioa mantendu egin duela, Erein-ek 20 puntu gora egin duela eta Ibaizabal-ek ere 22 puntu gora egin duela. Gorakada hauek berrargitalpenei dagozkie oso-osorik. Nobedadeetan ez dago hazkuntzarik: Ibaizabal-ek aurrekoan baino hiru nobedade gehiago (72, guztira) atera ditu, Erein-ek bi (33, guztira), eta Elkarlanean-ek hamaika (110, guztira). Kasu berezia da Ttarttalo-rena, material motarengatik: aurrekoan baino 52 nobedade gehiago (130, guztira) eman ditu argitara. Azken puntu bat, interesgarria eta esperantzagarria, seinalatuta utzi nahi nuke, bukatu aitzin: argitaletxe handienetako bakoitzaren produkzioa aurreko urtean baino altuagoa izanik ere, berauen pisua apalagoa da oraingoan; zifratan adierazita, Elkarlanean, Ibaizabal eta Erein-ek elkarrekin iaz % 45 suposatzen zuten; eta oraingoan % 38. Txikiagoak hornituz doazela pentsatzeak irekitzen dio nire esperantzari leihoa. Egia ote? Ez ote?

Argitalpena zifratan


Ekoizpena titulutan

1.458 titulutan neurtu dut nik 1998ko produkzioaren tamaina, gorago esandako moduan. Galeuska-koen artean ez dakit oraintxe bigarren edo hirugarren garen. Izan ere, ISBNko agentzia espainiarraren esanetan 1.216

titulu atera omen dira. Informazio iturri berak dio katalanek (valentziera eta Aranekoa barne) 7.318 titulu atera ditzutela eta gailegoek 1.231. Nire kontuen arabera bigarren kokatzen gara, eta bestela hirugarren.


Konparaketak aparte utzita, geurera itzuliz atzera, gauza bat dago garbi: sekula baino titulu gehiago atera dela. Aurreko urtean baino 229 titulu gehiago, eta 90eko hamarkadatik 300 titulu gora egin dugu. Hamarkadako batez bestekoa 1.163 titulu da.

Tituluen eboluzioaren indizea



Urte batean gora eta hurrengoan behera ibili izan gara azken urteotan. Iaz eta aurten ez da horrela, bietan gora egin baitu titulu produkzioak, baina ez dakit hori joera berri baten seinale denentz. Denbora aldetik talaia hobea behar denez, ezin da ezer finkorik erabaki hala-hola, perspektiba laburrean. Edozein modutan ere grafikoa hor dago, eta horrek gora goazela seinalatzen du.

Titulu produkzioa urtez urte



1998an 18,6 puntu egin du gora produkzioak aurreko urtekoaren gain. Orduan ere gora egina zen, bestalde: 12 puntu orduan. Bi urtetan, beraz gorakada dexentea egin du, 229 batean eta 132 bestean.

Aurreko lerro guztiek optimismora garamatzate, itxura batean. Egia da ekoizpenak egonkortasun altu bat mantentzen duela. Egia da urtero-urtero modu iraunkor batean gora egiten dugula. Baina kasu: tituluez ari gara, tituluez. Eta ez aleez, ez liburu unitateez. Beste modu batera esanda: inportantea da, oso inportantea, eskaintza aldetik gora egitea, aberastea, dibertsifikatzea, bai. Baina ia-ia inportanteagoa da kontsumoa handitzea, irakurleen zirkulua zabaltzea, irakurle berriak biltzea.

Zertan gara ale kopuruari dagokionez? Nik jakin ez dakit zenbat liburu irakurtzen den gurean. Ez dakit, ezta ere, zenbateko ale kopurua produzitzen dugun urtean zehar. Baina hamarkada honetan ale eskaintza asko gehitu ez delakoan nago. Hau da, titulutan gora eta gora egin dugu, eta tiradatan behera eta behera. Azken batez, deskuidatuz gero, eskaintza editorial berdina. Ez dakit, baina datorren urtean horixe aztertzea gustatuko litzaidake.

Kontrapuntu hau begien bistan eduki behar da tituluaren araberrako gorakadak ekar diezagukeen optimismoa bere tamainan hartzeko. Euskal liburuaren merkatua garrantzian instalatua ikusten dut, eta jendea konforme edo etsita, ez dakit. Liburuaren sektoreari egotz dakiokiena idatziaren sektore osoari legokioke, bestalde. Daukagun merkatua daukagu, eta geldi gaude. Ez dugu merkatua lantzen, ez dugu mimitzen. Eta zertan esanik ez, ez dugu handitzen. Inertzia da nagusi.

Eta bien bitartean zer ari da gertatzen? Prestigioa, izen ona, etorkizuneko zantzua, eta ondorioz inbertsioak paper euskarrian ez direla gehiago egiten, baizik eta euskarri informatikoan. Honek esan nahi du, epe ertainera paperaren egoera oraingoa baino askoz ere eskasagoa gertatuko dela. Idatziaren mundura, edo komunikabideen mundura, kanpotik datozen guztiek teknologia berrietara jotzen dute, ez dakit efikaziak edo lilurak gidaturik. Bestetik, kulturaren arduradun politikoentzat ere askoz ere bistosoagoa da azken orduko teknologien apustua, etorkizun-

na hor bakarrik bailitzan. Eta horretaz guztiaz gain, orobat, sektoreak ez du deus esaten, ez du diagnosirik, ez du diseinurik, ez du plan estrategikorik.

Liburuaren mundua, eta idatziarena oro har, gutxi barru bizi begetatiboan datzake, guztion erruz. Esku-hartze positibo bizkor bat behar-beharrezkoa du, bestela akabo.

Belaunaldi galduaren patua, atzera? Daukagunari ez diogu eusten, eta ez daukagunaren bila goaz galdu-gordean. Dentsitatea galtzen dugu bidean, eta masa kritikoa. Hainbat alorretan gertatu zaigu lehen ere gauza bera. Euskaldun berriak sortu behar ziren, eta euskaldunzaharrak abandonatu egin genituen. Euskara batua lortu behar zen, eta bizkaiera bere kasa galtzen utzi genuen. Telebista zen inportantea, eta komunikabide idatziak hor konpon.


Errealetik birtualera dagoen aldea bizitzatik heriotzara dagoena izan daitekeela ahaztea ez da komeni.

Nobedadeak eta berrargitaldiak

Nobedadea edo lehen edizioa zer den edozeinek daki: urte horretan lehen aldiz argitara eman den liburua. Honen osagarri eta kontrako muturra da urte berean aurrekoa barik beste argitaraldi bat duen liburua. Berrargitaldia deitzen zaio horri.

1998an 1.025 titulu izan dira nobedade. Produzio osoaren % 70,3 da hori. Ehun eta berrogeita hamar titulu gehiago atera dira, baina berrargitaldiekiko proportzio berdintsuan dabil ibili. Berrargitaldiak % 30 eskas dira. Titulutan: 433, aurreko urtean baino 80 titulu gehiago.


Nobedadeak eta berrargitalpenak



Nobedadeen lerroak gora eta behera egin ohi du urte-tik urtera, urte batekoa hurrengoan konpentsatu nahiko bailuen. Duela bi urteko jaitsiera handi xamarra eta gero, bai aurreko urtean bai iaz gora doa lerroa, nobedadeen alde.


Berrargitalpenaren lerroak ez du deskonpentsaziorik batere. Hamarkadaren lehen zatian balio berdinetan mantendu ohi da lerroa, grafikoan ikustenenez, baina azken lauzpabost urteotan goranzko joera hartu du nabarmen.

Nobedadeak



Ia 17 puntu gora egin dute nobedadeek, aurreko urtearekiko erlazioan. Titulutan, lehen ere esan dugu, 150 bat. Oraingoarekin bi urte segidan gora egin dute nobedadeek kopuru absolututan.

Berrargitalpenak



Aurreko urtearekiko 23 puntuko igoera izan du berrargitaraturiko liburuen kopuruak; 80 bat titulu, guztira.

Argitalpenaren arabera mailakaturik honela sailka daiteke 1998ko produkzioa.

Lehen argitaraldia.....	1.030 titulu
Bigarren argitaraldia.....	166
Hirugarren argitaraldia.....	72
Laugarren argitaraldia.....	49
Bosgarren argitaraldia.....	40
Seigarren argitaraldia.....	35
Zazpigarren argitaraldia.....	29
Zortzigarren argitaraldia.....	12
Bederatzigarren argitaraldia.....	6
Hamargarren argitaraldia.....	8
Hamaika argitaraldi edo gehiago.....	18
Hainbatgarren berrargitaraldi.....	8

Argitaraldi gehien-gehienak urte batetik besterakoak dira. Baina badira urte berean argitaraldi bat baino gehiago izan dituztenak. 1998an argitaraldi bat baino gehiago izan dituztenak 10 dira. Horietako batek, *Ostegunak*-ek, 5 edizio izan ditu. Lauko bat ere badago, lehenarekin batera: *Tentazioak*. Urte berean hiru edizio izan arren ez du meritu gutxiago *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburuak, 17.etik 20.era pasa baita.

1998ko urte bukaeran bi liburu dira ediziotan goren-goren koka daitezkeenak: aipaturiko *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* da bat; eta *110 Street-eko geltokia*, bestea (17 argitaraldi oraingo argitaletxearekin eta 3 aurrekoarekin).

Zerrendan ondoren datoz: 17rekin, *Istanbulen elkartu -ko gara*; 16rekin, Joxan Ormazabalen *Pernando Amezketarra, Babilonia*; 15ekin, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian, Narrazioak*; 14rekin, *Desagertutako emakumea*; 13rekin, *Londresen nago aitonarekin, Sherlock Holmes-en istorioak-1*; 12rekin, *Eskubeltz taldearen abenturak, Atzapar arrastoak*; 11rekin, *Esaera zaharrak eta txiste berriak, Goizuetako ezkongaiak, Irabazi eta galdu*.

Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak


Lehen ediziokoak 1.025 liburu baldin badira, horietatik 700 dira jatorrizkoak (% 68,3) eta 325 itzulitakoak (%31,7).

Ez dakit elkarren arteko proportzioa egokia den ala ez. Baina seguru nago oraingo proportzioa duela urte batzuetakoa baino egokiagoa dela. Hona 90eko hamarkadan nobedadeen barruan jatorrizko liburuak eta itzulitakoak izan duten eboluzioa:

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1990	61,-	39,-
1991	57,7	42,3
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7

Garbi ageri da hemen azken urteotako eta batez ere iazko liburugintzan jatorrizko liburuaren aldekoa dela tendentzia. Besterik gabe positibotzat ematen dut nik joera hori, nahiz eta ikusi egin behar den gero zein liburu tipotan mamitzen den itzulpena.


Jatorrizko liburuak eta itzulpena nobedadeetan




Elkarri kontrajarriak dira berez jatorrizko eta itzulitako liburuen lerroak. Batak gora egin ahala besteak behera egin behar du erremedio gabe. Taulan ikusi dugunaren beste bertsio bat da hau.

Urtez urte izan duten joera banan-banan ikusteak ere badu interesik.

Jatorrizko liburua



Itzulpena



Zenbaki absolututan, aurreko urtetik hona jatorrizko liburua 120 titulutan gehitu da. Itzulitako liburuak, aldiz, 30 unitate gehiago jaso ditu.

Gaietan barrena

Ekoizpena gai-sailka aztertu ohi dugu parte honetan. Euskal liburua, eta euskara bera ere ez, ez dago berdin presente bizitzako eta gai-sailtako esparru guztietan. Haur literaturan liburu ugari dago eta gutxi filosofian. Irakas-kuntzan produkzioa bete-betean dagoen bitartean bada makina bat alor liburu miserable bat gabe. Desoreka honek sakoneko gaitza salatzen du, diglosiarena.

Aurten ere gai-alor espezifiko beteenak betiko hiruak dira: Irakaskuntzari, Haur eta Gazte Liburuari eta Helduen literaturari dagozkionak. Hiruen artean urteko produkzio osoaren % 72,8 hartzen dute. Beti bezala, altu. Gauza asko esan nahi du honek. Nik puntutxo bat bakarrik azpimarratuko nuke, alegia, bi sail kargatuena irakaskuntza eta haur eta gazteentzako liburuek osatzen dutenak direla, eta bien artean % 58,6 osatzen dutela, eta biak direla gazte jendearentzat.

Norbaitek ohartaraz lezake gaietan hirugarrena «giza eta gizarte zientziak» sailak osatzen duena dela. Bai hala da, baina gai-sail hori ez dugu besteen parean jartzen zabal delako oso, Unibertsitateko ikasgaien erdia eta gehiago jasotzen baitu berak bakarrik.

Goazen orain astiroago gaietan barrena.

Hezkuntza eta irakaskuntza

475 titulu bildu ditut sail honetan. Pisu handia du produkzioaren baitan: % 32,6. Bestela esanda, hiru liburutik bat alor honetako liburua da. Bistan da liburu mota hau dela titulutan txapelduna. Eta aletan ere bai, berau baita kontsumorik handiena duena, inolako zalantzarik gabe.

Aurreko urtean baino ere 72 titulu gehiago publikatu dira, eta, hala ere, produkzioarekiko pisua bi puntu jaisi da zorionez.

Irakaskuntza mailaren arabera honela sailkatzen da ekoizpena:

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	12,8
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	14,7
Lehen Hezkuntza.....	35,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	28,4
Euskararen irakaskuntza.....	7,4
Besterik.....	0,9

% 100

Hezkuntza erreformari lotua doan ikasmaterialgintza izaki, begiak itxita ere asma daiteke zeintzuk izango diren azpisailik beteenak: LH eta DBH. Lehen Hezkuntzak (LH) % 35,8 bereganatu du, eta Derrigorrezko Bigarren Hez-


kuntzak (DBH) % 28,4. Proporzioak alderantziz ziren aurreko urtean. Urte batetik bestera azpisail bat ala bestea gehiago kargatzea ez zait iruditzen hezkuntza erreformari dagokionik, argitaletxearen berrargitalpen politikari baizik. LHn, izan ere, 1998an berrargitalpenak % 81,3 suposatzen du. Urteko liburu berriek, aldiz, DBHn dute proporziorik hoberena.

Ikasmaterialetan, 1998an lehen aldiz oker ez banago, berrargitalpenak nobedadeen kopurua gainditu egin du. Sail honetako liburuen % 53 berrargitaratua da, eta % 47 nobedade gisa aurkeztu dena. Zertan datza gakoa? Hezkuntzako premiak asebate ote dira ala argitaletxeen makinariak ez du sorkuntzan gehiago ematen?

Nobedadeen barruan jatorrizko liburuak du lehentasuna itzulitakoaren kontra. Jatorrizkoak: % 68,2. Itzulitakoak: % 31,8. Aurten ez dut azterketa errepikatu, baina kontuan izan behar da irakaskuntza liburuetan ohitura editorial txarrak ere badirela, eta merkatu interesengatik iruzurra egin ohi dela zenbait itzulpen «kamuflatzen» delarik.

Edozein modutan ere, haziz doan liburu tipo baten aurrean gaude. 17,8 puntu gora egin du 1998an ere, 72 titulu gehiago.

Irakaskuntzako liburua



Ikasmaterialgintzan produkzioerik handiena Elkarlanean argitaletxeak eta Ikastolen Elkarteak elkarrekin plazaraturikoa da. Hamar urtetan bi erakunde hauek elkarrekin landu eta atera dituzte materialak. Bertan egindako kurrikuluma da, bertatik bertarakoa. Produkzio aldetik bi-

garrena Ibaizabal da. Bertako argitaletxea da izan, baina kurrikuluma kanpoko du, Edelvivesena. Erein dator hirugarren ekoizpenean, eta honen kurrikuluma bertakoa da, berton egina. GIE (Ikastolen Elkarte), Elkar (Elkarlanean) eta Erein dira lehen orduko argitaratzaileak euskal ikasmaterialgintzan. Ibaizabal bezala kanpoko kurrikulumean oinarritzen dira Giltza eta Zubia ere, hurrenez hurren Edebe eta Santillanarenean. Gaur egun Euskal Herrian gehien saltzen duten enpresa editorialetan kurrikulumen jatorriari so eginez, % 57 da berbertako kurrikulumei dagokien produkzioa eta kanpokoena % 43.


Eduki batzuetan kanpoko kurrikulum horiek ez dira gordin-gordin inportatzen. Formula desberdinak daude horretan: egokitu, edo osatu, edo zuzendu egin ohi dira, segun eta editoriala. Baina gehienetan jatorriaren marka gelditzen zaie. Maiz salatu izan da, adibidez, Euskal Herriaren eta Autonomi Erkidegoaren nahasketa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria kanpoan uztea, Frantziako muga Hendaian jartzea. Eta zenbat bitxikeria Euskal Herriko historia azaltzean! Eta horrezaz gainera, ereduak eta adibi-deak espainolak dira sarri.

Haur eta gazteentzako liburuak

380 titulu dira sail honetan kokatu ditugunak. Produzitu den lau titulutik bat sail honetakoa da: % 26.

Aurreko urtetik hona igoera izan du liburu tipu honek, eta ez nolana hiko, 55 puntu gora, 135 titulu gehiago.

Haur eta gazteentzako liburuak




Igoera harrigarri horretan gehien eragin dutenak ez dira berrargitalpenak izan (% 31) baizik eta nobedadeak (% 69). Hori bai, nobedadeen kopuru hori ez da jatorrizko liburuaz elikatzen, itzultitakoaz baizik. Hain zuzen ere inportazioko liburuak bikoiztu egiten du etxekoa: % 66,2 da lehena; eta jatorrizkoa, % 33,8.

Literatura

207 tituluz osaturiko sail honen pisua, produkzioaren baitan, arindu egin da, ez asko: % 18,2tik % 14,2ra jaitsi da.

Zenbaki absolututan ere dozena erdi bat unitate gutxiago da oraingoan. Jaitsiz-jaitsiz doan hirugarren urtea da. Urteroko galerak ez dira alarmatzekoak, ez, baina goranzko tendentziarik ez somatzeak sor dezake kezka-puntua hemen.

Literatur liburua



Nobedadeek erraz gainditzen dute berrargitalpenen kopurua: % 72,5 versus % 27,5. Proporzio egoki samarra ematen du.

Nobedadeen barruan, jatorrizko liburuaren alde jokatu da 1998an. Jatorrizkoa % 78,7 da eta itzultitakoa % 21,3. Gustatzen zait proporzio hau ere.

Ez nobedadeen proporzioa, ez jatorrizko liburuen proporzioa dira berdinak sail honen barnean biltzen di-

ren genero guztietan. Baina garrantzi handirik ere ez du, narratiba parte utziz gero. Izan ere, sail honetan narratibak erabakitzen du, sailaren % 59 berea baita. % 59 bakarrik ere esan genezake ia-ia, aurrekoan % 61,8 izan baitzuen eta duela bi urte % 72,5. Indar erlazio hobean daude gaur generoak.

Eleberria. Ipuina.....	59,-
Olerkia.....	10,1
Antzerkia.....	6,3
Herri-literatura. Bertsoa.....	4,8
Antologiak. Gutunak.....	4,8
Saioa.....	5,8
Generoak nahasian.....	4,3
Besterik.....	4,8
	% 100


Giza eta gizarte zientziak

Gai mota oso desberdinak eta ugariak dira hemen bildu ohi direnak.

Bete egin da 1998an sail hau: 252 titulu dira, aurreko urtean baino 53 titulu gehiago. Produkzioaren barruan, hala ere, bere pisua apenas indartu den: % 17,3 da.

Bi urte jarraian hazi egin da liburu tipo hau, baina 1995ean lortu zuen gailurrera ez da berriro iritsi. 1998an 26,6 puntu gora egin du, aurreko urtean gutxixeago.

Giza eta gizarte zientzietako liburuak



Hona sail honi dagozkion gai eremuak:

Filosofia eta Psikologia.....	4,-
Soziologia eta Estatistika.....	9,5
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	12,3
Zuzenbidea. Administrazioa.....	13,5
Linguistika eta Filologia.....	13,5
Geografia eta bidaiak.....	4,3
Historia eta biografiak.....	20,2
Etnologia.....	8,-
Edertia.....	9,2
Besterik.....	5,5

%100

Berrargitalpenak apenas duen indarrrik hemen: % 2,8.
Ez da batere seinale ona. Kontsumoak ez du tira egiten.

Nobedadeetako gehien-gehienak jatorrizkoak dira, etxean eginak: % 88,2. Eta itzulitakoak % 11,8. Liburu hauetako gehienak etxean eginak direla, egia da, baina ez euskaraz. Seguru nago zifra hauetan agertzen dena baino dezente handiago dela itzulitako liburuaren indarra.

Gainerakoak

Liburugintzaren barruan pisu gutxiago izan arren, entitate propioa baduten hiru sailtxo aipatu ohi ditugu azken zati honetan: Aisia liburuak, zientzia eta teknika gaietakoa eta erlijiozkoa.

Aisia liburuak

Eskultura. Margolaritza.....	28,5
Musika.....	18,-
Argazkigintza.....	23,2
Jostaldiak. Jokoak. Kirolak.....	23,2
Besterik.....	7,1

% 100

Berrogeita hamasei liburu sartzen dira alor oso desberdinetan banatuta: gastronomia, dantza, antzerkia, kirola, jostaldiak, argazkiak, musika, eskultura, margolaritza, etab. Honek guztiak liburugintza osoaren gain % 3,8 bakarrik pisatzen du. Berrargitalpena hutsaren parekoa da; eta nobedadeetan ia liburu guztiak etxeak dira.

Zientzia eta Teknika

Zientzia oro har.....	6,5
Natur zientziak.....	13,-
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	36,4
Medikuntza.....	18,-
Ekologia. Ingurunea. Agronomia.....	32,8
	<hr/>
	% 100

Erljioa. Teologia

Teologia morala eta praktikoa.....	21,4
Teologia pastoralak.....	21,4
Biblia.....	21,4
Eliza kristaua. Liturgia. Misioak.....	28,6
Besterik.....	7,2
	<hr/>
	% 100

Hamalau liburuz hornitzen den sail batek ezin du izan garrantzi handirik ia 1.500eko ekoizpen batean. Berargitalpena hemen ere zero da, eta nobedadeetan itzultitako liburuaren pisua ere ezdeusa da.

Hala ere, literatura erlijiosoaren errealitatea ez da ongi biltzen hemen, bai baita bestelako materialik eliz zirkuitutan asko erabiltzen denik, katekesia dela, pastoralak dela. ♣

Oharrak

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:
 - Tituluaren ostean eta parentesi artean:
 - i = itzulpena
 - b = berrargitalpena
 - e = elebikoa
 - Izenen artean:
 - / = itzultzailea
 - // = ilustratzailea (marrazkilaria zein argazkilaria)
 - Izenaren ondoren:
 - * = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea
 - ** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea
 - *** = euskalki aldatzailea
 - [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.
2. Bihotzez eskertzen diet informazioa bidali didaten argitaletxeei eman didaten laguntza. Bereziki eskertzen ditut Elkarlanean, UEU, Zubia, Giltza, Alberdania, Susa, Erein, Ibaizabal, Gaiak azterlana egin ahal izateko produkzioa eskutan utzi didatelako. Eskerrik beroenak, halaber, KMko Agurtzane Juanenari eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Artzamendiri eman didaten informazio bibliografiko estimagarriagatik.

Eta, azkenik, esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Kultura eta Euskara Departamentuari, aurten ere, eskaini didan laguntzagatik. Laguntza horri esker egin ahal izan ditut, behar den bezala, bilketa eta azterketa hau.

1998ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	403	27,7
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	23	1,7
— Haurrentzako argitalpenak	380	26
1. FILOSOFIA	10	0,8
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	10	0,8
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	14	0,1
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	14	0,1
3. GIZARTE ZIENTZIAK	588	40,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	113	7,9
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	475	32,6
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	34	2,5
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	34	2,5
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	27	1,9
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Kimikagintza. Zenbait industria eta lanbide. Erakuntza. Sukaldaritza	27	1,9
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	79	5,5
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	66	5,4
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	13	0,1
8. FILOLOGIA. LITERATURA	241	16,5
— Hizkuntzalaritza. Filologia	34	2,3
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	207	14,2
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	62	4,5
— Geografia	11	0,8
— Biografiak	40	2,9
— Kondaira	11	0,8
GUZTIRA	1.458	100

1. (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia. 26 x 30 cm. 10 or.
- 10. Haur Literatur Lehiaketa / 10º Certamen de Literatura Infantil.** AS-KOREN ARTEAN. Iruñeko Udala. Iruñea. 30 cm. 45 or.
- 100 ideia zoragarri jolasteko.** (i). ROBINS, Deri; SANDERS, Meg; CROCKER, Kate/Kintana, Xabier//Stowell, Charlotte. Librififer. Bilbo. 29 cm. 80 or.
- 110. Street-eko geltokia.** (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 152 or.
- 14 autore: haur literatura / 14 autores: literatura infantil.** (e). AÑORGA, Pello; ALZOLA, Nerea. Mondragon Unibertsitatea. Eskoriatza. 21 cm. 106 or.
- 14eko Gerla Handia.** SAINT-PIERRE, Jean/Charritton, Piarres*. Euskal Editoreen Elkarte. Donostia. 20 cm. 282 or.
- 15 urte Euskal Herriko ingurugiroan: 1983-1998 / 15 años en el medio ambiente del País Vasco: 1983-1998.** LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA (E.J.). Ihobe. Bilbo. 30 cm. 79 or.
- 1997ko ekitaldia industri politika: jarduketako esparru orokorra 1996-1999 / Ejercicio 1997, política industrial, marco general de actuación 1996-1999.** INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 30 cm. 149 or.
- 1998ko ingurugiro egoera Euskal Autonomia Erkidegoan / Estado del medio ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco 1998.** (e). LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA (E.J.). Ihobe. Bilbo. 30,5 x 21,5 cm. 749 or.
- 1999 Aurrekontu Orokorreren Proiektua / Proyecto Presupuestos Generales 1999.** (e). OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 30 cm.
2. (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia. 26 x 30 cm. 10 or.
- 27.173: Atsotitzak / Refranes / Proverbs / Proverbia.** (e). GARATE, Gortzon/Bilbao, Joserra**. BBK Fundazioa. Bilbo. 24 x 17 cm. 741 or.
3. (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia. 26 x 30 cm. 10 or.
4. (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia. 26 x 30 cm. 10 or.
- 4 x 4: Sally Gutiérrez, Connie Mendoza, Rosa Silva, Mayte Vieta [Erakusketa].** (e). -. Donostia Kultura. Donostia. 22 cm. 40 or.
- 877 refranes españoles con su correspondencia catalana, gallega, vasca, francesa e inglesa.** SEVILLA MUÑOZ, Julia eta beste/Sevilla Muñoz, Julia; Cantera Ortiz de Urbina, Jesús**. Ediciones Internacionales Universitarias. Madrid. 18 cm. 343 or.
- 9808 narrazioak.** ARANO, Jon eta beste. Euskaldunon Egunkaria. Andoain. 21 cm. 175 or.
- 98ko belaunaldia: bertako apunteak / Generación del 98: apuntes locales.** (e). OKENDO KULTUR ETXEA. Donostiako Udala. Donostia. 18 cm. 58 or.
- A zer kuxidadeko bahiketa!.** (i). GREGORI, Josep/Atxega, Nerea//Erostarbe, Xabier. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 151 or.

- Abereen etxaldea.** (b/i). ORWELL, George/Elexpuru, Juan Martin//Alonso, Isabel. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 164 or.
- Abertzaletasuna: Euskal abertzaletasunaren mende bat / Un siglo de nacionalismo vasco.** (e). BERNARDO URKIJO, Iñaki; CAMINO, Iñigo eta beste. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo. 21 x 18 cm. 60 or.
- Abner judua eta gizon-tximinoa.** (i). HAUFF, Wilhelm/Pelaez Arregi, Feliciano. Infomart. Legutiano. 19 cm. 63 or.
- Abraham.** IGERABIDE, Juan Kruz//Olariaga, Antton. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 107 or.
- Adartxoren alfabetoa.** (b/i). LIBSA/Elizegi, Patxi//Noriega, Fernando. Ttartalo. Donostia. 19 x 21,5 cm. 22 or.
- Adartxoren denborapasak.** (b/i). LIBSA/Mendizabal, Antxiñe//Noriega, Fernando. Ttartalo. Donostia. 17 x 24 cm. 16 or.
- Adartxoren eranskailuak.** (b/i). LIBSA/Mendizabal, Antxiñe//Noriega, Fernando. Ttartalo. Donostia. 21,5 x 31,5 cm. 8 or.
- Adigaiak I (Batueraz).** (b). ATEKA, Piedad/Pinuaga, Amaia; Gorrotxategi, Sabin*/San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak III (Batueraz).** (b). ATEKA, Piedad; IBAIZABAL TALDEA//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adigaiak IV (Batueraz).** (b). ATEKA, Piedad; IBAIZABAL TALDEA//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartzea: Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia / Intervención con infractores menores de edad penal: informe extraordinario del Ararteko al Parlamento Vasco.** (e). CENTRO DE DOCUMENTACION Y ESTUDIOS SIIS /Markiegi, Xabier eta beste**. Ararteko. Gasteiz. 24 cm. 734 or.
- Afrikako semea.** (b). ARANA, Aitor. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 166 or.
- Ahate pobreen urmaela.** (i). CASALDERREY, Fina/Lartategi, Josu//Puebla, Teo. Giltza-Edebé Taldea. Sondika. 17 x 12 cm. 165 or.
- Ahatetxo itsusia.** (i). LIBSA/Aztiri/Libsa. Ttartalo. Donostia. 19 x 14 cm. 16 or.
- Ahots teknika / Técnica vocal.** (e). AGUERRI, Edurne. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 52 or.
- Aingeru guardakoa, ez izan ganorabakoa.** (i). CALLEJA, Seve/Auzmendi, Lurdes//Novoa, Teresa. Aizkorri. Bilbo. 20 cm. 96 or.
- Ainhoari gutunak.** (b). SARRIONANDIA, Joseba. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 74 or.
- Aita Jose Antxieta (s.j.) dohatsua (1534-1597).** AROCENA EGIMENDIA, Eugenio/Azpeitiko Udala; Antzerki Topaketak**. Azpeitiko Udala. Azpeitia. 21 x 15 cm. 151 or.
- Aita Menni Ospitalea: Santa Agedako historiaren 100 urte: 1898-1998 / Hospital Aita Menni: 100 años de historia en Santa Agueda.** (e). -./Aristorena, Juan Carlos; Fdez. de Larrinoa, Pedro P.**. Aita Menni Ospitalea. Arrasate. 29 cm. 131 or.
- Aitaren bila.** (b/i). WEST, Margaret/Mendiguren, Iñaki//Etxebeste, Jon. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 224 or.
- Aitona Blas eta iratxoak.** ARRIZABALAGA, Mikel//Erostarbe, Xabier. Elkarlanean. Donostia. 21 x 14 cm. 66 or.

- Akordeoi alaia / Acordeón divertido.** (e/i). LLANOS, Ricardo/Arteach, Iñigo eta beste//López de Ipiña Peña, Amado; López de Ipiña Peña, Montxo. Egile editore. Gasteiz. 30 cm.
- Aladdin.** (i). DISNEY ENTERPRISES. Aizkorri. Bilbo. 28 cm. 47 or.
- Aladino.** (b/i). CON-BEL/Mendizabal, Antxiñe//Con-Bel. Tarttalo. Donostia. 23 x 16,5 cm. 20 or.
- Aladino.** (i). LIBSA/Aztiri/Libsa. Tarttalo. Donostia. 19 x 14 cm. 16 or.
- Alako batean.** AYERBE, Joxe. Sendoa. Oiartzun. 20 cm. 222 or.
- Alatriste kapitaina.** (i). PEREZ-REVERTE, Arturo; PEREZ-REVERTE, Carlota/Iaben, Xabier//Puerta, Carlos. Zubia. Etxebarri. 24 x 17 cm. 241 or.
- Alderdi komunistaren manifestua.** (i). MARX, Karl; ENGLÉS, Friedrich/Kintana, Xabier/Azurmendi, Joxe*. Jakin. Donostia. 21 x 12,5 cm. 108 or.
- Alegietako istorioak 1.** (b/i). CON-BEL/Elizegi, Patxi//Con-Bel. Tarttalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 64 or.
- Alegietako istorioak 2.** (b/i). CON-BEL/Elizegi, Patxi//Con-Bel. Tarttalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 64 or.
- Alfonso Ascunce [Erakusketa].** (e). ASCUNCE, Alfonso; ZAPATER, Juan (testua). s.l. s.n. 24 cm. 42 or.
- Alfonso XI.ak Balmasedako uribilduari emondako pribilegioa / [Privilegio] otorgado a la villa de Balmaseda por Alfonso XI.** (e). GONZALEZ CEMPELLIN, Juan Manuel/Antoñanzas Cristóbal, María Victoria*. Enkarrietako Museoa. Sopuerta. 30 cm. 50 or.
- Aloñaren koloreen liburua.** (i). DOWLING, Paul/Mendizabal, Antxiñe //Dowling, Paul. Tarttalo. Donostia. 22,5 x 22,5 cm. 16 or.
- Altzairuen berotako konformazioa.** IBABE, J.M. eta beste. Elhuyar. Usurbil. 24 x 17 cm. 412 or.
- Altzeta.** (b). LINAZASORO, Karlos. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 175 or.
- Aluma.** (i). MAUPASSANT, Guy de/Garmendia, Mikel. Infomart. Legutiano. 19 cm. 62 or.
- Amets uhinak.** (b). LANDA, Mariasun/Lucas, Jesus. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 156 or.
- Ametsen kontrabandista.** (b). MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier//Urmeneta, Asisko. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 88 or.
- Amonaren botika: sendabide eta arbasoen aholkuak berezko osasunerako.** URKIXO, Joanes; LUQUIN, Pedro; BERNAOLA, Javier. Integral; Keinu. Barcelona; Bilbo. 27 cm. 160 or.
- Anaren historia.** (b/i). FIECHTNER, Urs M./Mendiguren Bereziartu, Xabier. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 184 or.
- Anastasio Arrinda. Herriko apaiza baino zerbait gehixeago / Algo más que un párroco de pueblo.** (e/i). CASTELLANO, Rafael/Jaidura. Debako Udala. Deba. 24 x 17 cm. 56 or.
- Ander Arzelus eta Antonio Maria Labaien. 98ko belaunaldiko antzerki-lariak.** AROZENA EGIMENDIA, Eugenio/Azpeitiko Udala; Antzerki Topaketak**. Azpeitiko Udala. Azpeitia. 21 x 15 cm. 169 or.
- Anemometroa.** ESTANKONA, Igor. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 91 or.
- Animaliak.** (b/i). LIBSA/Mendizabal, Antxiñe//Libsa. Tarttalo. Donostia. 22 x 23,5 cm. 12 or.

- Animaliak.** (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttartalo. Donostia. 15,5 x 15,5 cm. 6 or.
- Animaliak: zure lehen entziklopedia.** (i). HACHETTE/Elhuyar. Elhuyar. Usurbil.
- Animalien abenturak 1.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 32 or.
- Animalien abenturak 2.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 32 or.
- Animalien abenturak 3.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 32 or.
- Animalien abenturak 4.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 32 or.
- Animalien ipuinak 1.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 64 or.
- Animalien ipuinak 2.** (b/i). FENOSA, J. & MONTAÑA, M./Elizegi, Patxi//Fenosa, J. & Montaña, M. Ttartalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 64 or.
- Antoine d'Abbadie, 1897-1997: Ezohiko Kongresua / Congrès International. Hedaye, Sare 1997.** (e). -. Eusko Ikaskuntza; Euskaltzaindia. Donostia; Bilbo. 24 cm. 765 or.
- Anton Abbadia (1810-1897).** URKIZU, Patri. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 23 x 22 cm. 20 or.
- Antonino Apreta.** (b). ATXAGA, Bernardo//Zabaleta, Jon. Erein. Donostia. 21 x 15,5 cm. 41 or.
- Antxeta - Gipuzkoako urtekari ornitologikoa 9.** GOROSPE ROMBOUS, Gorka. Egile editore.
- Antzarren VIII. Bertso-paperak: Lazkao, 1998ko apirila.** MAIZPIDE, EUSKALTEGIA; GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA. s.l. s.n. 30 cm. 24 or.
- Antzuolako hizkera.** LARRAÑAGA IGARZA, Jone. Antzuolako Udala. Antzuola. 24 x 17 cm. 361 or.
- Apoa eta beste.** LEGORBURU, Mailux. Maiatz. Baiona. 21 cm. 151 or.
- Arabako euskararen lekukoak: ikerketak eta testuak / El euskara alavés: estudios y textos.** (e). -./Knörr, Henrike; Zuazo, Koldo*. Eusko Legebiltzarra. Gasteiz. 25 cm. 529 or.
- Areartzako euskal jaialdiak.** ALBERRO, Luzia. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo. 24 x 17 cm. 141 or.
- Areso eta Leitzako hizkerak —bertako hitz eta historian barrena—.** OLANO, Mikel//Astiz, M^a Jose. Nafarroako Gobernua. Iruñea. 29,5 x 21 cm. 395 or.
- Argi superdetektibea.** (i). LOON, Paul Van/Solozabal, Maite/Carril, Isabel*/García, Fátima. Bruño. Bilbo. 19 cm. 91 or.
- Argizariaren egunak.** LERTXUNDI, Anjel. Alberdania. Irun. 23 x 17 cm. 232 or.
- Ariaren hariak.** OLASO BENGOA, Xabier. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz. 22 cm. 47 or.
- Arima basaltoan.** SANTISTEBAN ZIMANO, Karlos. Kutxa Fundazioa. Donostia. 21 cm. 59 or.
- Arima hilak. Poema.** (i). GOGOL, Nikolai Vasilievich/Morales Belda, Jose. Ibaizabal. Euba. 19,5 x 12,5 cm. 544 or.

- Arpoi baten eran.** (b). AGIRRE, Juan Bautista/Mujika Iraola, Inazio*; EEE**. Alberdania. Irun. 20 x 12,5 cm. 137 or.
- Arranopola!** (i). RIVAIS, Yak/Arretxe, Jon//Rivais, Yak. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 128 or.
- Arrantza hiztegia.** (e). UZEI; NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 292 or.
- Artearen Historia. Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa. 1. DBHO. Gida.** FERNANDEZ, Jose Javier; TRUCHUELO, Marta; TRUCHUELO, Susana//Atxega, Nerea; Artaraz, Jabi**. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 140 or.
- Artzain gezurtia - Oreina eta ehiztaria.** (b/i). CON-BEL/Olaberria, Itziar//Con-Bel. Ttarttalo. Donostia. 19 x 27 cm. 32 or.
- Asier eta Egia Gurutzatuen liburua.** (b). MARKULETA, Gerardo//Erostarbe, Xabier. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 53 or.
- Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika 96 / Estadística de entidades de seguro libre de asistencia médico-farmacéutica 96.** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 68 or.
- Aska itzazue pottokak! (Batueraz).** FRIERA URBISTONDO, Iñaki//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 19 x 12 cm. 159 or.
- Askatasun ipuinak. (Gonagorritxo; Marrakatzarra; Kilkir abestia/Luzear. Aitita Alejoren ahume zuria eta beste ipuin bat) (4 bol.).** (i). ARZELUS, Ander «Luzear»; LUCARINI MACAZAGA, Amador/Piedra, Gabriel//Lucarini, Amador; Rivas, Edurne; Bao, Mikel; Martinez, Roberto. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo. 17 x 24 cm.
- Askatu eizuez pottokak! (Bizkaieraz).** FRIERA URBISTONDO, Iñaki//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 19 x 12 cm. 159 or.
- Asteroida.** LARTATEGI, Josu. Aizkorri. Bilbo. 21 cm. 46 or.
- Asto bat hypodromoan.** (b). ATXAGA, Bernardo//Zabaleta, Jon. Erein. Donostia. 21 x 15,5 cm. 42 or.
- Astoa eta idia - Azeria eta otsoa.** (b/i). CON-BEL/Olaberria, Itziar//Con-Bel. Ttarttalo. Donostia. 19 x 27 cm. 32 or.
- Asun Balzola. Irudiak.** (e/i). RIVIERE, Angel/Labayru Ikastegia//Balzola, Asun. Ikeder. Bilbo. 17 x 11 cm. 15 or.
- Ataungo organo Barrokoa.** -. Ataungo Udala. Ataun. 21 cm. 15 or.
- Ate debekatua.** EZKIAGA LASA, Patxi//Berzosa, Miguel. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 55 or.
- Athletic Club (1898-1998): mito baten kronika.** SAIZ VALDIVIELSO, Alfonso Carlos eta beste/Saiz Valdivielso, Alfonso Carlos*. Aizkorri. Bilbo. 31 cm. 236 or.
- Atlas sentimental: egonaldi bat Marokoko berbereen artean.** ZUBIZARRETA, Patxi//Miguel Amoztegi, Jesús Ignacio. Alberdania. Irun. 20,5 x 14,5 cm. 130 or.
- Atzapar arrastoak.** (b/i). LANDON, John/Mujika, Jose Antonio. Elkarlanean. Donostia. 18 x 11 cm. 72 or.
- Aukera egin behar dut! DBHn erabakiak hartzeko Programa / ¡Elijo! Programa de orientación vocacional en la ESO.** (e). HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 29,5 x 21 cm. 260 or.

- Aukerakotasun espazioa derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan / El espacio de opcionalidad en la Educación Secundaria Obligatoria.** (e). HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 152 or.
- Auñemendiko lorea.** AGIRRE, Txomin/Toledo, Ana*. Euskal Editoreen Elkarte. Donostia. 20 cm. 211 or.
- Aurkitu ezberdintasunak.** (i). SUSAEТА/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Tarttalo. Donostia. 21,5 x 27 cm. 24 or.
- Aurpegia@errepresentazioa.com: gizonak eta makinak, errealitatea eta errepresentazioa / Rostro@representación.com: hombres y máquinas, realidad y representación.** (e). PARDO, José Luis eta beste/Arteleku**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 21 cm. 115 or.
- Autodeterminazioa morala: hezkuntza eta garapen ereduak balioen eremuan.** (i). OSER, Fritz; ALTHOF, Wolfgang/Morales, Koldo. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 24 x 17 cm. 608 or.
- Azularren historiak.** AXULAR NAVARROIS, Pierre d'/Salaberri Muñoa, Pamiela. Iruñea. 19 x 13 cm. 109 or.
- Azeri axiantea. Le roman de Renart.** ANONIMOА/Arzallus, Juan Mari*. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 191 or.
- Azeritxoa salbatzera. -.** Librifera. Bilbo. 22 cm. 10 or.
- Azken babalorea.** (b/i). PLANTE, Raymond/Sarasola, J. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 100 or.
- Azken gorra.** (i). SANTIAGO, Roberto/Castro Legarza, Gotzon//García, Sergio. Giltza-Edebé Taldea. Sondika. 17 x 12 cm. 95 or.
- Azken hegaldia.** (i). BALLAZ ZABALZA, Jesús/López Gaseni, Manu. Aizkorri. Bilbo. 21 cm. 101 or.
- Azkenaz beste.** (b). LERTXUNDI, Anjel. Alberdania. Irun. 23 x 17 cm. 222 or.
- Azoreak eta baporeak.** GARMENDIA, Mikel//Valverde, Mikel. Zubia. Etxebarri. 20 x 12 cm. 74 or.
- Ba omen zen errege bat...** (i). JANER MANILA, Gabriel/Atxega, Nerea//Ginesta, Montse. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 100 or.
- Babesik gabeko Haur eta Gazteen Zaintzaren inguruko Plan Orokorra / Plan Integral de Atención a la Infancia y Juventud en desprotección social.** (e). GIZARTEKINTZA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 27 cm. 356 or.
- Babilonia.** (b). IRIGOIEN, Joan Mari. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 232 or.
- Badago ala ez dago?.** ARRIETA MALAXETXEBARRIA, Yolanda. Aizkorri. Bilbo. 21 cm. 87 or.
- Baietz ba! 3. Abestiak - Entzute ariketak (Bi zinta).** IRIONDO GONZALEZ, Eduardo; ETXEBARRIA LEGINA, Edurne; IBAÑEZ AMEZAGA, Kristina. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa.
- Baietz ba! 3. Ariketa-liburuska (erantzunekin).** IRIONDO GONZALEZ, Eduardo; ETXEBARRIA LEGINA, Edurne; IBAÑEZ AMEZAGA, Kristina. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 27 x 20 cm. 72 or.
- Baietz ba! 3. Ikaslearen ariketa-liburuska.** IRIONDO GONZALEZ, Eduardo; ETXEBARRIA LEGINA, Edurne; IBAÑEZ AMEZAGA, Kristina. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 27 x 20 cm. 54 or.

- Baietz ba! 3. Ikaslearen liburua.** IRIONDO GONZALEZ, Eduardo; ETXEBA-
RRIA LEGINA, Edurne; IBAÑEZ AMEZAGA, Kristina. EHU. Argitalpen
Zerbitzua. Leioa. 27 x 20 cm. 144 or.
- Baietz ba! 3. Irakaslearen gidaliburua.** IRIONDO GONZALEZ, Eduardo;
ETXEBAARRIA LEGINA, Edurne; IBAÑEZ AMEZAGA, Kristina. EHU. Argi-
talpen Zerbitzua. Leioa. 27 x 23,5 cm. 130 or.
- Bakarka 1.** (b). LETAMENDIA, Juan Antonio/Letamendia, Juan Antonio.
Elkarlanean. Donostia. 27 x 20 cm. 280 or.
- Bakarka 2.** (b). LETAMENDIA, Juan Antonio/Letamendia, Juan Antonio.
Elkarlanean. Donostia. 27 x 20 cm. 352 or.
- Bakarka 4.** (b). MUJIKA, Jose Antonio. Elkarlanean. Donostia. 27 x 20 cm.
288 or.
- Bakarka 5.** (b). MUJIKA, Jose Antonio. Elkarlanean. Donostia. 27 x 20 cm.
304 or.
- Bakarrik bahago neguan: poema bilduma.** OTAMENDI, Jose Luis. Pamie-
la. Iruñea. 19 x 13 cm. 253 or.
- Bakegintzan elkarrekin: pastoral idazkia, 1998 Abendu-Eguberri / Ca-
minemos juntos hacia la pacificación: carta pastoral, Adviento-Navi-
dad 1998.** (e). SETIEN ALBERRO, José María. Idatz. Donostia. 21 x 11,5
cm. 237 or.
- Balantx.** KAZABON, Antton/Erostarbe, Javier. Elkarlanean. Donostia. 18,5
x 13 cm. 75 or.
- Balantzeen analisisa.** ARRIZABALAGA, Espe eta beste. Elhuyar. Usurbil. 24
cm. 190 or.
- Balea.** (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia. 15
x 18 cm. 10 or.
- Balendiñe Albizu (1914).** GARMENDIA, Elixabete. E.J. Argitalpen Zerbitzu
Nagusia. Gasteiz. 23 x 22 cm. 24 or.
- Balentzia eta egitura molekularra.** (i). FOWLES, G.W.A.; CARTMELL, Ed-
ward. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 24 x 17 cm. 410 or.
- Banka-zerbitzuen baliatzailearen eskuliburua / Manual del usuario de
servicios bancarios.** (b/e). MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO
SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 cm. 154 or.
- Bapatean 97.** ARAMENDI, Martin eta beste/Bertsozale Elkarte**^{*}. Elkarla-
nean; Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. Donostia. 21 x 13,5 cm. 312 or.
- Barbantxo.** YARNOZ, Sagrario; ORMAZABAL, Joxantonio//Lucas, Jesus. El-
karlanean. Donostia. 24 x 24 cm. 36 or.
- Baroja gurea / Baroja nuestro: (Pío Baroja, 1872-1956).** (e). MARAÑA, Fé-
lix; UNSAIN, Jose Maria. Bidebarrieta Kulturgunea. Bilbo. 26 cm. 170 or.
- Bart irakurtzeko gaur izkiriatura.** IZAGA, Xabier. Susa. Zarautz. 20 x 12,5
cm. 104 or.
- Basauriko toponimia.** ROS CUBAS, Ander; CABELLO, Jesús M^º. Labayru;
Basauriko Udala. Bilbo. 25 cm. 403 or.
- Baserri eraitsia. (Jatorrizkotasunaren adierazpena).** ALONSO, Andoni;
ARZOZ, Iñaki. Gaiak. Donostia. 21 x 16,5 cm. 310 or.
- Baserria.** (i). SUSAETA/Mendizabal, Antxiñe//Susaeta. Ttarttalo. Donostia.
24 x 30 cm. 14 or.
- Baserriko lanean laguntzen.** (i). ATEKA, Piedad/Kintana, Xabier//Valle, Be-
lén de. Librifrer. Bilbo. 22 cm. 12 or.

- Baserriko leihotik: aldi hartako kezak eta gogoetak, 1965-1975.** AGI-
RRETXE AZPILLAGA, Eujenio. EFA. Frantziskotar Argitaletxea. Oñati. 21
cm. 253 or.
- Basoa, guztion laguna.** (i). ATEKA, Piedad/Kintana, Xabier//Valle, Belén
de. Librifera. Bilbo. 22 cm. 12 or.
- Bazen behin, behin bazen.** (b). KAZABON, Antton//Astrain, Luis. Elkarla-
nean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 96 or.
- Bazkaltzera!** (i). SZEKERES, Cyndy/Mendizabal, Antxiñe//Szekeres, Cyndy.
Ttartalo. Donostia. 20,5 x 19 cm. 14 or.
- Beasaini buruzko monografia etnografikoa: On Joxe Migel Barandiaran-
en «Galdeketa etnografiko baterako gidaliburua» oinarri harturik
egindakoa / Monografía etnográfica de Beasain: elaborada en base a
la «Guía para una encuesta etnográfica» de Don José Miguel de Ba-
randiaran.** (e/i). ZUFIAURRE GOYA, José/Insausti, Josean. Beasaingo
Udala. Beasain. 30 cm. 528 or.
